# NAI DUGU

Ona emen, itz bitan, Euzkadi salba dezakean bide bakarra. Euskaldunok nai ba dugu, Euzkadi bizi egingo da; nai ez ba dugu, berriz, il egingo da. Guere eskuetan dago etorkizuna. Ez España'renetan, ez Frantzia'renetan, ez ONU edo NATO'renetan ere. Ez milla aldiz Guek, geuk, geuk.

Euskaldunok arraza bat gera, gutxi gora behera beiñipein: ala da, esaten dute antropologoak, naiz muga ertsiak jarri segituan esanari.

Euskaldunok izkuntza berezi bat dugu, guk bakarrik itzegiten duguna, guk galdu ezkero galduta egongo litzakeana: egia au ere, agirian dago.

Euskaldunok libre izan gera Istorian zear, 1839 gn. urtera arte. Alde askotatik egia da au ere, bestetatik ez ba da ere.

Iru zio nagusi Euzkadi libre izan dedin. Alaxe. Ori guzia iaportantea da, garrantzitsua da. Eta irizpide oietzaz baliatu oi gera gure Aberriaren auzia ezagutzen ez duen bati Euzkadi erri eta nazio bat dala erakutsi nai diogunean.

Ala ere badakigu (edo beintzat jakin bearko genuke) Euzkadi'n arraza, izkuntza eta istoria bat izan arren, orrengatik eta orren bidez BAKARRIK ez dugula Aberria salbatuko.

Gaurko mendean ez arrazak, ez izkuntzak, ez igaroak, ez diote erri bati ematen ez bere buruaren nagusitasuna, ezta libre izateko eskubidea bera ere. Jakintzaren ezagugarri biurtu dira iru oñarri oiek baiñan ez zuzenbide-tiur.

Kontutan ar dezagun. gañera, zuzenbide biurturik ere ez dala askotan geiegi aurreratzen... Zoritxarrez istoria indarrak egiten baitu geienik, eta ez zuzentasunak.

Gaur beraz, bestetan baiño ere nabarmenago agian, zerk ematen dio azkatasuna erri bati? Zerk ematen dio bere buruaren jabe biurtzeko eskubidea bera? Zerk eman lizaioke Euzkadi'ri? Egunero entzuten ari gera: autodeterminazioak.

Ongo dago erri bat gerala guk jakitea, gure etsaiak ongi dakiten bezela, eta ez jakin eta arrotzai jakiñaraztea. Baiña Euzkadi azkatzeko besterik bearko dugu. Álegia, dagoen gauza bakarra: GERONEK NAI IZATEA.

Gure errian, gaiñera, eta aurrerantzean ala izango dan nago, bi nidade: euskalduna (euskotarra esan bear gaur, zoritxarrez), eta española (edo frantsesa). Euzkadi, batzuri gogoko ez ba zaie ere, BIAK batak eta besteak osatzen dute: euskeraz jakin ala ez jakin, olako edo alako apellidua izan, jatorrago ala belarrimotzago, EUZKADI'N BIZI DIRAN GUZIAK dira gure erria. Atzerriko jopuak eta mendekoak bezela jokatzen ez ba dute, gure anaiak dira. Danak lagunt dizaiguteke, eta ala izan dedin irabazten saiatu bear dugu. Euzkadi euskaldun eta libre bat sortzea: ona emen gure Aberriak danai eskatzen diena.

Gure erriak nai ez ba du, gure egiazko erriak alegia, Aberriaren azkatasuna, alperrik dira izkuntza, arraza, eta gaiñerakoak oro.

Euzkadi'k nai dezan ari gera, beraz. EUZKADI'KO GUZIAK EUSKALDUN ETA LIBRE IZAN NAI DEZATEN.

Euzkadi'k bizi nai dezala: onatx kakoa.

Orra ere eginkizuna.

TXILLARDEGI

---

**Vasco, canaliza tu contribución por el camino que prefieras: Gobierno, Partido Político. E.G. del Interior, Enbata, ETA. . . Pero no te demores. Hazlo ya.**

# ESCRIBAMOS CON HECHOS

Textualmente de uno de nuestros corresponsales en EUZKADI:

"La policía está dando palizas HORROROSAS. Me acaban de confirmar que Laspiur, Etxabe, Ozaeta y Madariaga están siendo brutalmente apaleados. Arrieta, quien tenía la cabeza abierta de lado a lado, se duda de que siga vivo. A última hora se extiende, insistente y negro, el rumor de que ha muerto en los interrogatorios. Madariaga tiene tres costillas rotas y Ozaeta, una.

¡¡Estoy que hecho fuego!! Hace un año, en estos mismos momentos, ingresaba yo por segunda vez en Martutene. Aquéllo fue terrible. Y ésto de hoy es aún peor.

Es pues INADMISIBLE que vosotros, ni yo, ¡¡¡NI NADIE QUE SE SIENTA VASCO!!!, llevemos vida tranquila, como si nada ocurriera. Los detenidos EXIGEN de todos nosotros una dedicación MAXIMA.

¡¡¡ESCRIBAMOS CON HECHOS GORA EUZKADI AZKATUTA!!!

Ante noticias como ésta, que se vienen sucediendo en las últimas semanas, nosotros también sentimos que algo nos quema el alma. No sólo por lo que entrañan de injusticia y barbarie, sino por la actitud aún pasiva de muchos vascos. ¿Cómo es posible que tantos sigan esperando, ¿QUÉ?, sin descruzar aún sus brazos, sin brindar su colaboración para lo que haga falta? ¿Qué se puede pensar de vascos que hoy se niegan, abiertamente o con disculpas y mentiras pobres que a nadie engañan, a dar su aporte para los HOMBRES que luchan en el Interior? ¿Creen acaso que toda la obligación de libertar a EUZKADI debe gravitar sólo sobre los hombros de los heroicos gudaris del silencio? ¿Esperan quizás, para definirse, a ver el carro del vencedor y entonces pegarse gozosos y "patriotas" a la rueda?.. ¡¡¡Cuidado, cuidado con tamaño

(Cont. en pag. 7)